



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Berrizko Udala

Berrizko udalerriko enpresa-ekimena sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen ordenantzaren behin-betiko onarpena.

2022ko abenduaren 12ko 234. zenbakia duen «BAO» Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Berrizko udalerriko enpresa-ekimena sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena eta jendaurrean azaltzeko epea gainditu ondoren ez da erreklamaziorik aurkeztu:

Lehena: Berrizko udalerriko enpresa-ekimena sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen ordenantzaren behin betiko onarpena.

Bigarrena: Erabaki honen berri Hiritargo arloari jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean zen udal iragarki taulan argitaratzea.

Berrizen, 2023ko urtarrilaren 16an.—Alkatea

**BERRIZKO UDALERRIKO ENPRESA-EKIMENA SUSTATZEKO
DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK
ONARTZEN DITUEN ORDENANTZA**

ATARIKOA

Enpresa-merkatuaren egoera eta enpresa-sorkuntza sustatzeko beharra ikusita, Udalari dagokio enpresa-ekimen berriak sortzen laguntzeko sustapen-jarduerak egitea.

1. Xedea

Oinarri arautzaile honen xedea da Berrizko udalerrian enpresa ekimen berri bat gauzaten duten pertsona fisiko edo juridikoei dirulaguntzak ematea.

2. Aurrekontu zuzkidura

Dirulaguntzetako funts publikoak eta aplikatu beharreko aurrekontu partida, deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

Kopuru hau alda daiteke Berrizko Udalak hala erabakiko balu.

3. Onuradunak

Enpresa ekimena sustatzeko dirulaguntzen onuradun izan daitezke udalerrian negozio-unitate berri bat ezartzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

4. Onuradunek bete beharreko baldintzak

Pertsona edo erakunde onuradunek ondokoak bete behar dituzte:

Administrazio edota erakunde publikoen menpe ez egotea, ezta haiekin sozietate loturarik izatea ere.

Dirulaguntza publikoak eskuratzeko eskubidetik salbuetsita ez egotea.

5. Dirulaguntza eskuratu dezaketen kontratazio motak eta ekimenak eta dirulaguntzen zenbatekoa

Deialdi bakoitzaren urte naturalean zehar udalerrian negozio-unitate berri bat ezartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek jaso ahal izango dute laguntza, baldin eta jardueran gutxienez 6 hilabete ematen badituzte:

- 3.000 euroko dirulaguntza emango da enpresa-ekimen berrietarako.
- 3.000 euro gehiago kalean bertan bezeroarentzako arreta duten negozioak sortzen direnean, Berrizko hirigunean.

Diru hau Gizarte Segurantzako gastuetarako erabil daiteke edota burutuko den jarduerarako material teknikoa eskuratzeko. Gastu horiek jarduera hasi eta ondorengo 6 hilabeteetan egin beharko dira.

6. Beste laguntza batzurekin ematea

Laguntza hauek bateragarriak izango dira bestelako erakunde eta entitate pribatuek ematen dituztenekin, betiere jasotako dirulaguntza bateragarrien zenbateko osoa justifikatutako gastuaren zenbatekoa baino handiagoa ez bada.

7. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera ordezkari baten bidez egiten bada, ordezkaritza egiaztatu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Eskabideak eskabide normalizatuaren inprimakian aurkeztuko dira enpresaren ordezkariak sinatuta eta, hala badagokio, eskatutako dokumentazioarekin. Inprimakiak udalaren webgunean daude, dirulaguntzen atalean.

*Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa*

Dokumentazio egiaztagarria

- NAN.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzari ordaintzeko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Enpresaren edo erakunde onuradunaren IFK.
- Enpresa eratu izanaren erregistroko datuak eta eratzeko eskriturak, berezko izaera juridikoa duten erakunde kasuan. Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, kontratu pribatua gehitu beharko da, Foru Ogasunak zigitatua.
- Aurreikusitako gastuen aurrekontua.

Berrizko Udalak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez, eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu enpresa edo erakunde interesdunei buruz, administrazioaren esku dauden enplegu sorrera sustatzeko laguntzen administrazio-izapideetarako behar diren datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko.

Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Berrizko Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Eskabidean edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan ez badira identifikazio-datuak biltzen, akatsik ez badute edo osatu gabe badaude, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hamar eguneko epean zuzendu ditzan antzemandako akatsak, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, lege-testu horren 21.4 artikuluan aurreikusitako moduan, eskaera bertan behera utziko dela aurreikusitako terminoetan.

8. Eskabideak aurkezteko epea eta tokia

Eskabideak deialdi bakoitza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, dagokion alkatetza-dekretuaren bidez deialdiak urtero ezartzen duen egunera arte.

9. Dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta ordaintzeko prozedura

Laguntzak erregistro-ordenaren arabera emango dira, betiere ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Emakida hori ondorengo justifikazioaren mende egongo da, eta bosgarren puntuan aipatutako aurrekontu-mugen menpe.

Dirulaguntza ematea edota ukatzea, Berrizko Udalak berariazko ebazpen bidez egingo du. Ebazpen hau idatziz jakinaraziko zaio, eskaria egin duen pertsona edo erakundeari eskaria egin duenetik gehienez ere, sei hilabeteko epean.

Ez balitz ebazpenarekin ados egongo, Berrizko Udalak hartuko du erabakia eta, hala dagokionean, bi alderdiak Bizkaiko jurisdikzio eskudunaren pean geldituko lirarteke.

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, eskabidea aurkeztu eta gehienez ere hilabeteko epean.

Laguntzak eman eta ordaintzeko, Berrizko Udalak itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaitu beharko ditu, oraindik izapidetzen ari bada.

10.- Jasotako dirulaguntzaren justifikazioa

Onuradunak jasotako laguntza justifikatu beharko du, enpresa-jarduera hasi eta gehienez ere 7 hilabeteko epean.



Justifikazioarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentazio egiaztagarria

- Erakunde onuradunak tributu betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen egiaztagiria (eguneratua).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren eguneratutako egiaztagiria, betebeharrak egunean dituela ziurtatzen dituena.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Sortutako gastuen faktura/egiaztagiri originalak (Gizarte Segurantza, material teknikoa). Berrizko Udalak.
- Jasotako dirulaguntzaren publizitatea.

11. Onuradunen betebeharrak

Onuradun diren pertsona eta erakundeek Dirulaguntzen Lege Orokorrean ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, baita ondokoak ere:

1. Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein inguruabar, objektibo zein subjektibo, aldatu bada, jakinarazi egin beharko da.
2. Berrizko Udalak dirulaguntzak direla-eta eskatzen duen informazio guztia ematea.
3. Berrizko Udalari helburu berdinerako jasotako bestelako dirulaguntzen berri eman beharko zaio, beste dirulaguntza hau edozein administrazio zein erakunde publiko zein pribatuk emanda ere.
4. Udal honekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

12. Oinarriak ez betetzea

Onuradun den pertsona edo erakundeak oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat beteko ez balu, dirulaguntza eskuratzeko eskubidea galduko luke, jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko luke eta baita berandutza-interesak ere dirulaguntza ordaindu zenetik.

13. Araubide juridikoa

Dirulaguntzak arautuko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren arabera.

**Enpresa-ekimena sustatzeko laguntza ekonomikoak. Eskaera**
Ayudas económicas promoción iniciativa empresarial. Solicitud

Tel.: 946 824 036 / 946 824 584 – Faxes: 946 827 950 – berriz@berriz.eus – www.berriz.eus

Eskatzailea - Solicitante			
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ – DNI/NIE/CIF	
Helbidea (Kalea, zenbakia eta pisua) – Dirección (Calle, número y piso)			
Posta kodea – Código postal		Udalerría - Municipio	
Posta elektronikoa – Correo electrónico		Mugikorra - Móvil	Telefona - Teléfono

Ordezkaría – Representante			
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ – DNI/NIE/CIF	
Helbidea (Kalea, zenbakia eta pisua) – Dirección (Calle, número y piso)			
Posta kodea – Código postal		Udalerría - Municipio	
Posta elektronikoa – Correo electrónico		Mugikorra - Móvil	Telefona - Teléfono

Eskatzen den dirulaguntza - Subvención solicitada
3.000 euroko dirulaguntza emango da enpresa-ekimen berrietarako Una subvención de 3.000 euros para nuevas iniciativas empresariales
3.000 euro gehiago kalean bertan bezeroarentzako arreta duten negozioak sortzen direnean, Berrizko hirigunean 3.000 euros adicionales en casos de creación de negocios con atención al cliente a pie de calle, dentro del casco urbano de Berriz

Zinpeko adierazpena - Declaración jurada

Adierazten du Administrazio edota erakunde publikoen menpe ez egotea, ezta haiekin sozietate loturarik izatea ere	Declara no ser dependientes ni estar societariamente vinculadas a administraciones, entes u organismos públicos
Adierazten du diru-laguntza publikoak eskuratzeko eskubidetik salbuetsita ez egotea	Declara no haber sido excluidas del acceso a subvenciones públicas

DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN**Dokumentazio egiaztatagarria – Documentación verificable**

Eskaera honen aurkezpenak, Berrizko Udala baimentzen du elektronikoki eskatzeko prozedura ebazteko behar diren agiri hauek, aurka zaudela adierazten ez baduzu (39/2015 legeko 28.2 artikulua)

La presentación de la solicitud conlleva la autorización al Ayuntamiento de Berriz para recabar electrónicamente la siguiente documentación necesaria para la resolución de este procedimiento, salvo que usted se oponga expresamente (art. 28.2 de la Ley 39/2015)



Enpresa-ekimena sustatzeko laguntza ekonomikoak. Eskaera Ayudas económicas promoción iniciativa empresarial. Solicitud

Tel.: 946 824 036 / 946 824 584 – Faxa: 946 827 950 – berriz@berriz.eus – www.berriz.eus

Aurka nago Me opongo	Dokumentua Documento	Bakarrik zure datuekin bitartezkatzearen aurka bazaude adierazi behar duzu zergatia eta dokumentazioa aurkeztu behar duzu Sólo en el caso de que te opongas a la intermediación de tus datos debes motivar por qué y adjunta el documento requerido	
		Aurka egotearen zergatia Motivación de mi oposición	Dokumentazio eranstean dut Adjunto la documentación
	NAN DNI (18)		
	Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (3)		
	Gizarte Segurantzari ordaintzeko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones de pago a la Seguridad Social (15)		

Aurkeztu beharreko dokumentuak – Documentos a presentar:	
	Enpresaren edo erakunde onuradunaren IFK CIF de la empresa o entidad beneficiaria
	Enpresa eratu izanaren erregistroko datuak eta eratze-eskriturak, berezko izaera juridikoa duten erakundeen kasuan. Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, kontratu pribatua gehitu beharko da, Foru Ogasunak zigilatua Datos registrales de la constitución de la empresa y de las escrituras de constitución, en caso de entidades con personalidad jurídica propia. En el supuesto de las Sociedades Civiles sin personalidad jurídica propia, se incluirá el contrato privado sellado por la Hacienda Foral
	Aurreikusitako gastuen aurrekontua Presupuesto de gastos previstos

Bankuaren datuak – Datos bancarios					
Titularra – Titular				NAN/AIZ/IFZ – DN/NIE/CIF	
IBAN	Erakundea – Entidad	Sikurtsala – Sucursal	KD – CD	Kontuaren zenbakia - Número de cuenta	

Data eta sinadura – Fecha y firma
<p>Datuen Babesari buruzko informazioa ezagutzen dut eta esanbidezko baimena egiten dut Estoy informado/a acerca de la Protección de datos y realizo el consentimiento expreso</p> <p>_____ (-e)ko _____ (a)ren _____ (e)an</p> <p style="text-align: center;">Eskatzailea – Solicitante</p>



Enpresa-ekimena sustatzeko laguntza ekonomikoak. Eskaera Ayudas económicas promoción iniciativa empresarial. Solicitud

Tel.: 946 824 036 / 946 824 584 – Faxa: 946 827 950 – berriz@berriz.eus – www.berriz.eus

DATU PERTSONALAK

Izaera pertsonala duten datuen babeserako araudiaren arabera, baimena ematen duzu emandako datu pertsonalak Berrizko udalaren erantzukizuna den Idazkairtza kudeaketa izeneko fitxategian sartzeko, egoitza Iturrizta 51-Berriz (Bizkaia) izanik.

Tratamendu honen zeregina, idazkaritzako espedienteen eskaera, erregistro, kudeaketa eta jarraipena egitea da. Datu hauek ez zaizkie hirugarrengeoi igorriko eta gorde egingo dira beti ere, xede horretarako badira.

Hala ere, emandako baimena baliogabetu dezakezu; tratamenduaren muga, sarbide, zuzenketa, ezabapen edo/eta datuen eramangarritasun eskubidea betez. Eskaera hauek Berrizko Udaletxean, Iturrizta 51 48240 (Bizkaia) egingo dira.

Eta erreklamazioa aurkez dezakezu Datuen Babeserako Euskal Agentzian edo harremanetan jarri datu babeserako delegatuarekin dpo@berriz.eus

Halaber "Datu Pertsonalen Babesaren Arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-erakundeetarako" kontsulta dezakezu interneteko honako helbideetan: www.eudel.net eta www.avpd.es

DATOS DE CARACTER PERSONAL

En virtud de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal, por la presente autoriza a que los datos personales facilitados sean incorporados en un fichero denominado Gestión de Secretaría responsabilidad del Ayuntamiento de Berriz y con sede en Iturrizta 51- 48240 Berriz (Bizkaia).

La finalidad de este tratamiento es la de gestionar su petición y el registro, gestión y seguimiento de los expedientes de Secretaría. Estos datos no serán transmitidos a terceras personas y serán conservados siempre que sea imprescindible o legítimo para la finalidad que se captaron.

En cualquier caso, podrá indicar la revocación del consentimiento dado, así como ejercitar los derechos de acceso, rectificación o supresión, la limitación del tratamiento u oponerse, así como el derecho a la portabilidad de los datos. Estas peticiones deberán realizarse en Ayuntamiento de Berriz, Iturrizta 51-48240 Berriz (Bizkaia).

Así mismo también podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de datos o ponerse en contacto con el delegado de protección de datos dpo@berriz.eus

Asimismo, puede consultar el "Manual de Buenas Prácticas de Protección de Datos Personales para entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco" en las direcciones de internet www.eudel.net y www.avpd.es



Enpresa-ekimena sustatzeko laguntza ekonomikoak. Zuriketa Ayudas económicas promoción iniciativa empresarial. Justificación

Tel.: 946 824 036 / 946 824 584 – Faxa: 946 827 950 – berriz@berriz.eus – www.berriz.eus

Eskatzailea - Solicitante			
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ – DNI/NIE/CIF	
Helbidea (Kalea, zenbakia eta pisua) – Dirección (Calle, número y piso)			
Posta kodea – Código postal		Udalerría - Municipio	
Posta elektronikoa – Correo electrónico		Mugikorra - Móvil	Telefonoa - Teléfono

Ordezkaría – Representante			
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ – DNI/NIE/CIF	
Helbidea (Kalea, zenbakia eta pisua) – Dirección (Calle, número y piso)			
Posta kodea – Código postal		Udalerría - Municipio	
Posta elektronikoa – Correo electrónico		Mugikorra - Móvil	Telefonoa - Teléfono

DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN

Dokumentazio egiaztagarria – Documentación verificable

Eskaera honen aurkezpenak, Berrizko Udala baimentzen du elektronikoki eskatzeko prozedura ebazteko behar diren agiri hauek, aurka zaudela adierazten ez baduzu (39/2015 legeko 28.2 artikulua)

La presentación de la solicitud conlleva la autorización al Ayuntamiento de Berriz para recabar electrónicamente la siguiente documentación necesaria para la resolución de este procedimiento, salvo que usted se oponga expresamente (art. 28.2 de la Ley 39/2015)

Aurka nago Me opongo	Dokumentua Documento	Bakarriz zure datuekin bitartezkatzearen aurka bazaude adierazi behar duzu zergatia eta dokumentazioa aurkeztu behar duzu Sólo en el caso de que te opongas a la intermediación de tus datos debes motivar por qué y adjunta el documento requerido	
		Aurka egotearen zergatia Motivación de mi oposición	Dokumentazio eranstean dut Adjunto la documentación
	Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (3)		
	Gizarte Segurantzari ordaintzeko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones de pago a la Seguridad Social (15)		

Aurkeztu beharreko dokumentuak – Documentos a presentar:

	Sortutako gastuen faktura/egiaztagirí originalak (Gizarte Segurantzara, material teknikoak) Facturas/Justificantes originales de los gastos generados (Seguridad social, material técnico)
	Jasotako dirulaguntzaren publizitatea Publicidad de la subvención recibida



Enpresa-ekimena sustatzeko laguntza ekonomikoak. Zuriketa Ayudas económicas promoción iniciativa empresarial. Justificación

Tel.: 946 824 036 / 946 824 584 – Faxa: 946 827 950 – berriz@berriz.eus – www.berriz.eus

Data eta sinadura – Fecha y firma

Datuen Babesari buruzko informazioa ezagutzen dut eta esanbidezko baimena egiten dut
Estoy informado/a acerca de la Protección de datos y realizo el consentimiento expreso

_____ (-e)ko _____ (a)ren _____ (e)an

Eskatzailea – Solicitante

DATU PERTSONALAK

Izera pertsonala duten datuen babeserako araudiaren arabera, baimena ematen duzu emandako datu pertsonalak Berrizko udalaren erantzukizuna den Idazkaritza kudeaketa izeneko fitxategian sartzeko, egoitza Iturrizta 51-Berriz (Bizkaia) izanik.

Tratamendu honen zeregin, Idazkaritzako espedienteen eskaera, erregistro, kudeaketa eta jarraipena egitea da. Datu hauek ez zaizkie hirugarrenen igorriko eta gorde egingo dira beti ere, xede horretarako badira.

Hala ere, emandako baimena baliogabetu dezakezu; tratamenduaren muga, sarbide, zuzenketa, ezabapen edo/eta datuen eramangarritasun eskubidea betez. Eskaera hauek Berrizko Udaletxean, Iturrizta 51 48240 (Bizkaia) egingo dira.

Eta erreklamazioa aurkez dezakezu Datuen Babeserako Euskal Agentzian edo harremanetan jarri datu babeserako delegatuarekin dpo@berriz.eus

Halaber "Datu Pertsonalen Babesaren Arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-erakundeetarako" kontsulta dezakezu interneteko honako helbideetan: www.eudel.net eta www.avpd.es

DATOS DE CARACTER PERSONAL

En virtud de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal, por la presente autoriza a que los datos personales facilitados sean incorporados en un fichero denominado Gestión de Secretaría responsabilidad del Ayuntamiento de Berriz y con sede en Iturrizta 51- 48240 Berriz (Bizkaia).

La finalidad de este tratamiento es la de gestionar su petición y el registro, gestión y seguimiento de los expedientes de Secretaría. Estos datos no serán transmitidos a terceras personas y serán conservados siempre que sea imprescindible o legítimo para la finalidad que se captaron.

En cualquier caso, podrá indicar la revocación del consentimiento dado, así como ejercitar los derechos de acceso, rectificación o supresión, la limitación del tratamiento u oponerse, así como el derecho a la portabilidad de los datos. Estas peticiones deberán realizarse en Ayuntamiento de Berriz, Iturrizta 51- 48240 Berriz (Bizkaia).

Así mismo también podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de datos o ponerse en contacto con el delegado de protección de datos dpo@berriz.eus

Asimismo, puede consultar el "Manual de Buenas Prácticas de Protección de Datos Personales para entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco" en las direcciones de internet www.eudel.net y www.avpd.es